


Aidaketak Zurriolan

Zurriola hondartza, eta Sagues eta Monpas artean egin nahi den pasealekua hizpide izan dira aste honetan. Batetik, Zurriolako harreria indartzeko aspaldi egin beharreko lanak datarren hilean hasiko direla jakinarazi du Espainiako Ingurumen Ministerioak. Bestetik, ministerio honek berak, Sagues eta Monpas artean pasealekua eraikitzeko, ikerketa egingo duela jakinarazi du.

Lehen proiektuari dagokionez, Zurriolako harreria indartu nahi da, itsas ekaitz egunetan hondartzako azpiegiturak urez bete ez daitez. Egitasmoa joan den legealdian jarri zen

mahai gainean, baina hala ere, Espainiako Ingurumen Ministerioak geldirik izan du orain arte.

Bigarren proiektuari dagokionez, Donostiako Udalak dirulaguntza eskatu zion 1999an lehen aipatutako ministerioari Sagues eta Monpas artean pasealekua egiteko. Ingurumen Ministerioak, ordea, ez du egitasmoa begi onez ikusi, aurrekontua "handiegia" delako, eta beste proiektu bat egiteko ikerketa egingo duela adierazi du. Ildo horretatik, EA-EAJ koalizioak ministerioaren jarrera salatu du, "konponbide merkea bilatzen duelako", hain



zuzen. Halaber, koalizioak mozioa aurkeztuko du hilaren 28ko osoko bilkuran, Udalak pasealekua egiteko aurrekontua onar dezan eta Espainiako Ingurumen Ministerioari proiektua gauzatzeko dirua bideratzea eska diezaien.

San Marcoseko Plan Integrala aurrera

San Marcos Mankomunitatearen hiri hondakinak kudeatzeko Plan Integrala joan den asteazkenean, otsailak 26, onartu zen. Planak urrian jaso zuen mankomunitatea osatzen duten hamar udalerrien behin-behineko onarpena (Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil). Asteazkeneko bozketan, EA-EAJ, PSE-EE eta PPko kideek behin betiko oniritzia eman zioten planari, eta Sozialista Abertzaleak taldekoek, aldiz, aurkako botoa eman zuten.

Gogoan izan Sozialista Abertzaleak taldeak plangintzari oniritzia eman ziola urrian, "presio politiko handiak izan zirelako", adierazi digu Xabier Landa Oiartzungo alkate eta mankomunitateko presidentea. Duela hilabete inguru, SAko kideek helegiteak aurkeztu zituzten, besteak beste, "plangintzak zehaztapen gutxi eskaintzen dituelako hondakinak murrizteari eta berrerabilpenari dagokionez, eta errauste sistema ezegokitzat jotzen dugulako".

Plan Integrala 2006 eta 2016 bitartean hondakinak kudeatzeko proposamena da. Foru Aldundiak epe hori ezarri die Gipuzkoako zabor mankomunitateei Europako Batasunak agindutakoa bete dezaten. Gainera, aurreikuspenen arabera, San Marcoseko zabortegia 2006rako beteta egongo da, eta beraz, itxi egin beharko da.



Plangintzak hiri hondakinak kudeatzeko hiru ardatz nagusi proposatzen ditu: zaborrak gutxitzea, birziklapena areagotzea eta birziklatu ezin dena erretzea. Ildo horretatik, konpostatzeko eta birziklatzeko hainbat garbigune eta errausgailu bat egitea aurreikusi du plangintzak. Bai

garbiguneen eta bai errausgailuaren kokapena zehazteke dago oraindik. Dena dela, errausgailuari buruz, bi proposamen mahaigaineratu dira: Donostialdeak eta Tolosaldeak osatutako eremuko tokiren batean ala Donostiako metropoli barrutian egitea.